

ESKUALDE BILERETARAKO INFORMAZIOA / 2016ko iraila

1.- HEZKUNTZA SAILAK IGEEi BANATZEN DIZKIEN DIRU-LAGUNTZEN 2016KO DEIALDIA.

IRAILAREN 1ean argitaratu da Euskadiko Herri Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) IGEentzako diru-laguntzen deialdiaren berri ematen duen agindua. IGEEK **2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 egin dituzten edo egitekoak diren** jardueretarako laguntzak dira. Eskariak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da. Federazioaren webgunean (www.baikara.eus) deskargatzeko moduan daude bete beharreko inprimakiak, baita horiek betetzeko argibideen dokumentu bat ere.

Eskariak betetakoan, hiru bidetatik aurkez daitezke:

- Posta arruntez BAIKARARA bidaliz. Bide hau aukeratzekotan, komeni da eskaria irailaren 26a baino lehenago bidaltzea, gorabeherarik izanez gero egin beharreko zuzenketak egiteko astia izatearren.
- Eskaria aurrez aurre aurkeztea ZUZENEAN zerbitzuaren bulegoetan (Andia kalea, 13, Donostia) irailaren 30a baino lehen.
- Eskaria posta bulego batetik bidaltzea. Hala eginez gero, irailaren 30a baino lehen betiere, gutun-azal ireki batean eraman behar da dokumentazioa (jatorrizkoa eta kopia), Postak zigilatu eta jatorrizkoa **posta ziurtatuz** bidaltzeko, honako helbide honetara:
HEZKUNTZAKO LURRALDE ORDEZKARITZA / Berrikuntza Pedagogikoa/ Andia 13 - 20003 DONOSTIA

Aurreko urteetako eskariekin alderatuta, **bi betebeharrak berri** bete behar dira aurrean, diru-laguntza jasotzeko:

1.- Gizarte Segurantzarekiko obligazioak eta zerga obligazioak beteak izan behar ditu IGEEK.

Gizarte Segurantzarekiko obligazioak beteak izatea ez da zaila; izan ere, IGEEK langileak **zuzenean** kontratatzen ez baditu (*gehienez Federazioaren bidez edo zerbitzuak ematen dituzten enpresen bidez egiten dituzte*), ez legoke ezer bete beharrik, berez. Arazoa, ordea, zerga obligazioetan ager daiteke: IGEEK behartuta daude zerga aitorten jakin batzuk aurkeztera, beren jardueraren dela eta; bereziki, Sozietateen Zerga, **urtero nahitaez aurkeztu beharrekoa**, edo 347 ereduak aitortzen, IGEEK 3.000 eurotik gorako fakturak ordaintzen edo diru-laguntzak jasotzen baditu aurkeztu beharrekoa.

Hala, urteko aitorten hori aurkezten ez duten IGEEK (eta gure datuen arabera, IGE dezente daude egoera horretan) Foru Ogasunean zerga obligazioak beteak izatearen egiaztatzea eskatzean, obligazioak **BETE GABE DITUZTELA** agertzen da, eta, hortaz, **EZINGO DUTE diru laguntzarik eskatu**. Gainera, baliteke beste gorabehera batzuen ondorioz ere ezezko egiaztatzea jasotzea (errola deklaraziorik eza, jardueren hasieraren agiririk eza, etab.).

Zerga egoerari buruzko informazioa Federazioari eman ez dioten IGEEK Foru Ogasuneko gutun bat jasoko zuten ikastetxean, azalduz zer zerga egoera duten eta zer aitorten dituzten aurkeztu gabe. Garrantzizkoa da gutun hori jaso bezain laster Federazioarekin harremanetan jartzea (943 32 72 08 edo 605 707 715 telefonoetara deituz eta Imanolekin hitz eginez), egoera bideratzeko zer urrats egin beharko lirartekeen aztertzeko. Prozesu nahiko konplexua da, eta denbora behar da urrats guztiak egiteko. Hori dela eta, BAIKARAK erabaki du Zuzendaritza Batzordearen datuak Elkartearen Erregistroan eguneratuta eta erregistratu dituzten IGEEK zerga ordezkaritza kudeatzeko izapideak abian jartzean. IGE horiek, beraz, Foru Ogasunaren beste jakinarazpen bat jasoko dute 10/15 eguneko epean; jakinarazpen horretan, egiaztatze gako bat azalduko da. Eta gako hori Federazioari eman behar zaio, lehenbailehen. Hain zuzen ere, gako horren bidez BAIKARAK hartuko luke IGEEK zerga ordezkaritza bere gain, eta, horrela, Federazioa ardura liteke zerga aitortenak dagokion IGEEK izenean aurkezteaz.

2014ko irailetik Zuzendaritza Batzordea eguneratu eta erregistratu gabe duten IGEEK, berriz, berehalakoan egin konpondu beharko lukete akats hori; bestela, ezinezkoa izango da zerga ordezkaritza izapidetzea, eta ezinbesteko urratsa da egiteko dauden zertan aitortenak aurkezteko.

2.- Diru-laguntzaren zertarako:

Diru laguntzetan eskatutako kantitatearen %50 erabili behar da, nahitaez, prestakuntza jardueretarako, ikasleen nahiz familien prestakuntzarako. Eta horren berri eman behar da eskarian nahiz gastuen justifikazioan.

“Prestakuntza jarduerak” zehazki zer diren argitzearren, Hezkuntza Sailarekin harremanetan jarri gara, eta, azaldu digutenez, hitzaldiak, guraso eskolak, eskola kirola, ikasleen prestakuntza jarduerak finantzatzeko IGEek ikastetxeei egindako finantza ekarpenak, etab. sartzen dira kontzeptu horretan. Ez, aldiz, izaera nagusiki “ludikoa” duten jarduerak (jaialdiak, txokolate jana, txistorra jana, etab.).

Hortaz, eskaria betetzeko unean, hitzaldiak, guraso eskolak, eskola kirola, ikasleen prestakuntza jarduerak finantzatzeko IGEek ikastetxeei egindako finantza ekarpenak, etab. adierazi behar dira “Gastuen aurrekontua” dokumentuaren **3.1. atalean. 3.1 atalaren osoko zenbatekoak “Gastuen aurrekontua” dokumentuan adierazitako gastu guztien %50 hartu behar du, gutxienez.**

2.- OSASUN SAILAK MUGIKORTASUN AKTIBOA SUSTATZEKO BANATZEN DITUEN DIRU-LAGUNTZAK.

Aurreko ikasturtean bezala, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak laguntzen deialdi bat argitaratu du, ikasleen mugikortasun aktiboa sustatzeko. Abuztuaren 4an eman zuten EHAAan argitara deialdia, eta urriaren 14a da eskariak aurkezteko azken eguna.

Laguntza hauen helburua da: hiri-espazioek eskaintzen dituzten aukerak baliatuz eskola-bideak sortu eta dinamizatzeko finantzazioa eskaintzea 2016-2017 ikasturtean zehar eta, modu horretan, eskola-umeen mugikortasun aktiboa eta segurua sustatzea. Eskola-bidetzat joko dira ibilbide zehatz eta finkoak, markatuak eta dinamizatuak, eskola-umeek erabil ditzaketenak ikastetxeetako joan-etorriak modu aktibo, seguru eta autonomoan egiteko, oinez zein gurpil-oholez edo bizikletaz, eta, horrekin batera, espazio publikoaren erabilera eta gozamina berreskuratzea.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira 1. artikuluan ezarritako jarduerak egitetik zuzenean sortzen direnak. Honako hauek, besteak beste:

- Proiektuaren dinamizazioa eta koordinazio teknikoa.
- Ikastetxe eskatzailearen inguruan zer mugikortasun dagoen aztertzea.
- Hitzaldiak, tailerrak edo komunikazio-kanpainak antolatzea, ikastetxeko joan-etorrietan mugikortasun aktibo eta autonomoari sustatzeari lotuak.
- Materiala: txaleko islatzaileak, kartelak, liburuxkak, zirkulazio-seinale eramangarriak, eskola-bidearen seinaleztapena.
- Ekimen honetara atxikitzen direnen ikasleentzako pizgarriak.
- Ikastetxeetan, mugikortasun aktiboa errazten duten espazioak egokitzea; esaterako, bizikletentzako edo gurpil-oholentzako aparkamendu seguruak sortzea edo handitzea.

Aldez aurretik eginiko gastuak ordaindu daitezke jasotako diru-laguntzarekin, baldin eta gastu horiek diru-laguntza jaso duten jardueretan sartzen diren ekintza eta kontzeptuen kostu errealak badira, 2016 eta 2017. urteetan sortutakoak betiere.

Justifikazio-agiriak aurkezteko epea 2017ko ekainaren 15ean amaituko da, eta egun horixe izango da agiri horiek onartzeko azkena.

3.- IKASLEEN ESKOLATZEARI BURUZKO EZTABAIDARAKO JARDUNALDIA, IGEekin.

2016-2017 ikasturteko jardueren plangintzan aurreikusita zegoen Euskadiko IGEekin topaketa bat egitea urriaren 1ean. Topaketa horren helburuetako bat zen hezkuntza laguntzaren premia duten ikasleak (etorkinak, hezkuntza premia bereziak dituztenak, etab.) eskolatzeari buruzko eztabaida egitea eta horri buruzko dokumentu bat adostea. Asmoa zen dokumentu hori alderdi politikoei aurkezte, Legebiltzarrerako hauteskundeetako



programetan kontuan har zezaten, urrian egitekoak baitziren hauteskundeak. Urkullu lehendakariak, ordea, ekinaren erabaki zuen hauteskundeak irailaren 25era aurreratzea, eta, hortaz, ezingo dugu alderdi politikoen programetan gai honi buruz ezer egin. Hotaz, erabaki da bertan behera uztea urriaren 1eko topaketa. Hala ere, aurrerago egingo da, 2016-2017 ikasturtearen barruan, Legebiltzarra eratu eta Eusko Jaurlaritza berria izendatutakoan.

4.- 2016-2017 IKASTURTERAKO LAN EGITASMOA.

4.1 Eskualde bileren egutegia

Irailako bilerez gainera, beste bi eskualde bilera egingo dira 2016-2017 ikasturtean; seguru asko, urtarrilaren amaieran (23 eta 30 bitartean) eta apirilaren amaieran (25etik maiatzaren 4ra bitartean) izango dira.

4.2 Ohiko Batzar Orokorra

Zarauzko Lizardi Institutuan egingo da, azaroaren 5ean, larunbatean, 10.30ean, bigarren deialdian. Batzar Orokorrean aztertu beharreko gaietako bat BAIKARAREN Zuzendaritza Batzordea berritzea izango da. Une honetan, zenbait postu daude hutsik, eta, beraz, Zuzendaritza Batzordean ordezkaritza eduki nahi duten IGEei gonbita egiten diegu Federazioarekin harremanetan jar daitezten.

5.- HEZKUNTZA EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA

5.1 LOMCE eta HEZIBERRI ezartzea

Espainiako egoera politikoan erabateko blokeoa da nagusi, azken bi hauteskunde orokorren ondoren, eta behin-behinean ari da gobernua, 9 hilabetez, baina LOMCE ezartzeko aurreikusitako egutegia betetzen ari da, hala ere. Gaur egun, dagoeneko indarrean daude Legeak biltzen zituen neurri atzerakoi guztiak (errebalidak, ibilbide goiztiarrak, curriculumaren zentralizazioa, etab.), eta 2016-2017 ikasturtean zehar ezarriko dira DBHn eta Batxilergoan. Are gehiago, behin-behineko gobernuak uztailearen 31n onartu zuen falta zen azken ezarpen dekretua, DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 2. Mailako errebalidak arautzen dituenak. Hala, gobernu zentralak dagoeneko amaitua du LOMCEn lege garapena, ikasturte honetan ezarriko baita DBHko 2.-4. eta Batxilergoko 2. mailatan.

Bestalde, ikasturtearen erdialdera DBHko 4. mailako Batxilergoko 2. mailako errebalidak egin beharko lirake. Horiek nahitaez gainditu beharrekoak lirake DBHko eta Batxilergoko tituluak eskuratzeko, baina, lehen urtea izanik, aurten ez dute balio akademikorik izango, eta, errebalidak gainditu ez arren, aski izango da DBHko eta Batxilergoko ikasgaiak gainditzea, titulua eskuratzeko (2017-2018 ikasturtetik aurrera, aldiz, nahitaezkoa izango da errebalida gainditzea titulua eskuratzeko). Baina errebalidak balioa izango du unibertsitateara sartzeko proba gisa, desagertu egin baita gaur egungo hautapropa.

Hori guztia, teorian, jakina; izan ere, Euskadin HEZIBERRI 2020 proiektuko dekretuen bidez ezartzen ari da LOMCE, eta uztailean onartu zuen Eusko Jaurlaritzak Batxilergoari buruzko dekretua. Dekretu horietan ez da ageri zehatz-mehatz LOMCEn edukia, eta, hortaz, zalantza handiak daude. Alde batetik, gobernu zentralak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio aldatzeko Heziberri dekretuak eta egokitzeko LOMCEk diotenari, bestela auzitegietan inpugnatuko dituela mehatxu eginez. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, LOMCEri aurrez aurre kontra egiteko jarrera hartu ez arren, ez du argitu nola aurre egingo dion errebalidak ez egiteak dakarren egoerari. Prentsan egindako adierazpenetan, nahiz eta inongo dokumentu ofizialetan agertu ez, Hezkuntzako sailburuak azaldu du euskal ikasleek ez dituztela egin beharko errebalidako azterketak, eta une honetan unibertsitatearekin negoziatzen ari direla hautaproparen formatua, eta, betiere, Hezkuntza Sailaren kontrolpean egongo dela proba hori.

Baina, dirudienez, epe laburrera begira, behintzat, desagertu egin da, azken hilabeteetan, Espainiako Legebiltzarrak LOMCEn ezarpena geldiaraztea ekarriko lukeen estatu mailako ekimen bat bideratzeko itxaropena. Hala, euskal hauteskundearen emaitzak ikuskizun direlarik, LOMCE ezartzeko eta haren ondorio negatiboen mende gelditzeko arriskupean jarraituko du euskal hezkuntza sistemak.

5.2 Auzitegi Konstituzionalaren epaia, irakaskuntza ordui eta irakasleak ordezkatzeari buruzkoa.

Aurreko ikasturtearen amaieran jakin genuenez, Auzitegi Konstituzionalaren epai batek Eusko Jaurlaritzaren behartzen zuen irakasleen irakaskuntza orduen kopurua handitzera, baita ordezkapenak eskatzeko epeak luzatzea ere, 2012an Espainiako Gobernuak emandako murrizketen dekretuaren harira. Irakaskuntzako sindikatuen arabera, epai hori betez gero, 2.300 lanpostu desagertu litezke. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikasturte hasieran emandako zirkularren arabera, haur eta lehen hezkuntzetako irakasleen lanaldia asteko 23 orduetik 25 ordura aldatu da, eta Bigarren Hezkuntzan ere 2 ordu gehiagokoa izango da. Eusko Jaurlaritzak irakaskuntza orduen definizioaz egin duen interpretazioaren arabera, ordea, ikasleen partaidetza proiektuetako orduak irakaskuntza ordu modura hartzen direnez, ez da ia aldaketarik gertatu ikastetxeetako langile kopuruan. Hala ere, ikusteko dago epaiaren bigarren betebeharraren aplikazio praktikoa zertan gelditzen den; irakasleak ordezkatzeko epea hamar egunera luzatzea ekar lezake. Une honetan, bost egunekoa da ordezkotza ezartzeko batez besteko epea.

5.3 Testu liburuen programa solidarioa

Hezkuntza Sailak tematuta jarraitzen du 2007az geroztik eskola publikoko ikastetxeetan indarrean zegoen testu liburuen programa solidarioa pixkanaka deuseztatzen. 2016-2017 ikasturterako, erdira murriztu da Sailak Lehen Hezkuntzako lehen zikloan testu liburuak erosteko egiten duen inbertsioa, eta datozen ikasturteetan, pixkanaka, euskal eskola publikoko familiek beren gain hartu beharko dute curriculum material guztien kostua (liburuak, gailu elektronikoak, lizentzia digitalak, etab.) EHIGE konfederazioa aspalditik ari da egoera hori salatzen; izan ere, eskola publikora bideratutako baliabideen murrizketa bat gehiago da. Gainera, erabaki dugu familiei eskatzea 2016-2017 ikasturtean Hezkuntza Sailak Material didaktiko digital edo/eta inprimatuaren Programan eskatzen duen kuota soilik ordaintzea, susmoa baitugu Sailak ikastetxeei banatzen dizkien ekarpenak murriztean gora egin dezakeela familiei eskatzen zaien kuota.

Programa horren arabera, hauek dira ordaindu beharreko kuotak:

- Lehen Hezkuntzako 1. zikloa: 27 euro / - Lehen Hezkuntzako 2. zikloa: 30 euro / - Lehen Hezkuntzako 3. zikloa: 31 euro
- DBHko 1. zikloa: 41 euro / DBHko 2. zikloa: 45 euro
- (DBHko 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoan ez da aplikatzen programa hau, eta, beraz, familiek materialen kostu osoa ordaintzen dute)

Era berean, IGEei eskatzen zaie Federazioari eman diezaiotela kuota horien gaineko aldaketa ororen berri edo jakinaraz diezaiotela curriculum materialak erosteko beste zenbatekoren bat eskatzen den, kuotetatik aparte.

6.- INTERESEKO BESTE INFORMAZIO BATZUK.

6.1 Rural Kutxa- Caja Rural banketxeak IGEentzat sortutako finantza proposamena.

2016-2017 ikasturte honetarako luzatu da BAIKARAK eta CAJA RURAL-RURAL KUTXA finantza erakundeak egindako akordioa, zeinaren bidez jaso baititzakete IGEek hainbat banku zerbitzu (erreziboen kudeaketa, banku komisioak, diru-sarrerak esku-dirutan egiteko ordutegi muga, etab.) gaur egun ordaindu ohi diren baino nahiko merkeago. Akordioaren onuradun izateko interesa duten IGEek aski dute nahi duten Caja Rural banketxearen bulegora jotzea. Federazioak, eta, jakina, IGEek ez dute horri buruzko inolako konpromisorik.